

8/2026 Irizpena, martxoaren 9koa Berrikusteko prozedura: «*Ebazpena, Hezkuntza Departamentuko Irakasleak Hautatzeko eta Lanpostuak Betetzeko Zerbitzuko zuzendariak emana, erlijio katolikoko irakasleen lanpostuak betetzeko izangaien behin betiko zerrendak onesten dituen, interesdunari dagokionez*».

Eskatzailea: Hezkuntza Departamentua

Txostengilea: Ana Clara Villanueva Latorre

Interesa: Erabat deusezak diren egintzak: eskubide bat eskuratzeko funtsezko baldintzen eta beharrezko baldintzen arteko bereizketa.

Irizpen honen xedea da Hezkuntza Departamentuko Irakasleak Hautatzeko eta Lanpostuak Betetzeko Zerbitzuko zuzendariaren ebazpen bat ofizioz berrikusteko prozedura. Ebazpen horren bidez, erlijio katolikoko irakasleen lanpostuak betetzeko izangaien behin betiko zerrendak onetsi ziren, izangaietako bati dagokionez.

Hezkuntza Departamentuko Irakasleak Hautatzeko eta Lanpostuak Betetzeko Zerbitzuko zuzendariak hasi zuen prozedura hori, egintza deuseza zela iritzita, izangai horri eskubideak esleitu baitzitzaizkion horretarako funtsezko baldintzak bete gabe (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Legearen 47.1.f artikulua).

Nafarroako Kontseiluak behin eta berriz adierazi duen bezala, ofiziozko berrikuspena salbuespenezko ahala da, interpretazio murriztailea duena, eta, beraz, alegatutako akatsa zorrotz lehenetsi behar da. Zerbitzuko zuzendariak argudiatutako deuseztasunak (47.1.f artikulua) eskatzen du eskubidea eskuratzeko funtsezko baldintzarik ez izatea, ez beharrezko baldintzak hutsak edo interpretazio-akatsak (Auzitegi Gorenaren doktrina). Horregatik, Kontseiluak aplikatu beharreko araudia aztertu du zorrotz, hau da, Hezkuntzako kontseilariak emandako uztailaren 5eko 65/2013 Foru Agindua, Hezkuntza Departamentuaren zerbitzuko erlijio katolikoko irakasleei destinoak eta mugikortasuna esleitzeko arauak eta aipatu irakasleak kontratatatzeko kudeaketa arauak onetsi zituen.

Foru agindu horren 10. artikulua erlijio katolikoko irakasle gisa kontratatatzeko izangaien zerrendetan sartzeko baldintzak arautzen ditu, eta berariazko baldintza gisa ezartzen du elizaren egokitasun-adierazpena lortu izana. 14. artikulua 10. artikuluko baldintzak ez betetzea jasotzen du, kontrataziorako izangaien zerrenda guztietatik baztertzeko arrazoi artean.

Horrenbestez, Kontseiluak ebatzi du Artzapezpikuaren egokitasun-adierazpena funtsezko baldintza dela erlijio katolikoko irakasleen zerrendetan parte hartzeko, edozein modalitatetan, irakaskuntza-mailatan edo hizkuntzatan, eta baldintza hori ez betetzeak zerrenda horietatik kanpo geratzea dakarrela.

Kasu honetan, ofizioz berrikusi beharreko ebazpena eman zenean, Hezkuntza Departamentuan jasota zegoen Artzapezpikutzak interesdunari jakinarazi ziola haren egokitasuna ez zela berritu. Beraz, egintza horrek eskubide bat deklaratzeko du, baina izangaia ezin da haren titular izan, horretarako ezarritako funtsezko baldintza betetzen ez duelako (Artzapezpikuaren egokitasun-adierazpena); beraz, administrazio-egintza hori erabat deuseza dela deklaratu behar da.